



2021/2022 denboraldia

16. ZIRKULARRA

EMAKUMEZKOEN OHOREZKO ERREGIONAL MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

- 1 TOLOSA C.F.
- 2 OIARTZUN K.E.
- 3 LAGUN ONAK C.D.
- 4 UROLA K.E.
- 5 BERGARA K.E.
- 6 TOURING KE
- 7 OSTADAR S.K.T.
- 8 URNIETA K.E.
- 9 ZUMAIAKO F.T.
- 10 HERNANI C.D.
- 11 MARIÑO C.D.
- 12 BETI GAZTE K.J.K.E.
- 13 AMAIKAK BAT K.E.
- 14 EIBAR SAD
- 15 LEINTZ ARIZMENDI

2. LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailako liga txapelketa **15 taldek** osatzen dute multzo bakarrean. Fase bakarra jokatu da: puntuen bidez eta bi itzulietara (30 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.

Emakumezkoen Euskal Ligara menpekotasunik ez duen **lehen sailkatua igoko da**. Euskadiko Futbol Federakundeak erabakiko du, libre dauden plazen arabera, bigarren sailkatuak Bizkaiko eta Arabako postu horietan daudenekin 3x1 jokatu duen ala ez.



Gertukotasun arazoengatik modu razionalean geografikoki bi multzo edo gehiagotan banatuta dauden kategorietan honako legea beteko da: multzo batean zein bestean eskubide eta aukera berdinak.

Gure lehiaketetan indarrean dagoen irizpide honen arabera, igoera edo kategorian geratze eskubideak **sailkapenean postu berean** geratu direnen artean jokatuko dira, beti ere kategoria bat gorago menpeko taldea edo talde babestua duten horiek alde batera utzita. Hau da, kasu guztietan, **lehen sailkatuak, bigarren sailkatuak, hirugarren sailkatuak** eta horrela hurrenez hurren **jokatuko dituzte partidak beste taldean postu berdina betetzen duten taldeen aurka.**

Azken 2 sailkatuak Emakumezkoen Gorengoan Mailara jaitsiko dira.

3. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezeko egongo dira aulkian.

4. ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

5. XEDAPEN OROKORRA

Emakumezkoen Ohoreko Erregional Mailaren helburua 14-16 taldeko multzoa osatzea da. Hori dela eta, zirkularrean aurreikusitako igoera eta jaitsierekin, eta Euskal Ligatik egon daitezkeen jaitsierekin multzoa talde bakoitiek geratuko balitz, lurraldeko kategoria guztietan igoera eta jaitsierekin erabiltzen den irizpide orokor bera erabiliko da; hau da:

- Emakumezkoen Gorengoan Mailako talde bat igota.
- Emakumezkoen Ohoreko Erregional Mailatik jaitsitako taldeen artean ondoen sailkatu denaren jaitsiera saihestuta.
- Eta horrela behin eta berriro.



6. LIZENTZIAK

Inskribatutako taldeek gehienez 25 lizentzia izan ahalko dituzte, "FA", "FJ" eta "FF" lizentziei dagozkienak; azken kasu horretan, 15 urte beteta eduki beharko dira. Lehen taldean izena emanda dauden "FJ" eta "FF" lizentziadun jokalariek ezingo dute beren lizentziari dagokion taldean jokatu, hau da, jubeniletan edo kadeteetan.

7. DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

8. COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

Donostia, 2021eko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General